

# KANALAK

Gure proiektua erosiko duten enpresa pribatuetara, pertsonetara, gobernura, etab. iristeko erabili nahi ditugun kanal nagusienak osasun zentroak eta Diabetesarekin zerikusia duten erakundeak dira batez ere; esaterako, funtsezko elkarteetan aipatutako erakundeak. Hala ere, internet edo TV bezalako beste komunikabideak ere baliagarriak izango dira informazioa transmititzeko orduan. Horretaz gain, bezeroekin izan dezakegun kanal zuzena, gure proiektua sal dezagun, farmazien bidezkoa ere izan daiteke.

